

## GIPUZKOAKO HAMALAU GIZARTE ERAKUNDEK MOBILIZAZIO BAT ANTOLATU DUTE LARUNBAT HONETARAKO BULEBARREAN, PROTESTA EGITEKO GREZIAKO ETA BALKANETAKO ERREFUXIATUAK JASATEN ARI DIREN BIZI BALDINTZA GIZAGABEENGATIK

- Kanpaldi bat egingo dute 12:00etan, eta elkarretaratze bat 13:00etan, salatzeko nolako erantzukizuna izan duen Europako Batasunak babesa bilatzeko premian gertatu direnen egoera dramatikoan
- Hauek dira antolatzaileak: Ongi Etorri Errefuxiatuak, Amnesty International, Bake-Ekintza Antimilitarista, Salvamento Marino Humanitario, Zaporeak, Oarso Taldea, Matiz elkarte, Hiritarron Harrera Sarea, Kolore Guztiak, Denon, Hotz Zarautz, Oxfam Intermon, SOS Arrazakeria eta Errenteriako Emakume Taldea

Donostia.- Gipuzkoako hamalau **gizarte erakundek mobilizazio** bat antolatu dute **larunbat honetarako (azaroak 29) Donostia erdialdean**. **Protesta** egin nahi dute **errefuxiatuak eta migratzaileak** —batez ere, **Grezian** eta **Balkanetan** daudenak— **gorriak ikusten ari baitira** eta babesa eskatzen ari baitira **Europan**. Deialdiaren harira, kanpaldi bat egingo dute 12:00etan Bulebarreko kioskoan eta elkarretaratze bat 13:00etan.

Hauxe da deialdiaren leloa "**Europako Batasuna erruduna**", eta honako talde hauek eskatua da: **Ongi Etorri Errefuxiatuak, Amnesty International, Bake-Ekintza Antimilitarista, Salvamento Marino Humanitario, Zaporeak, Oarso Taldea, Matiz elkarte, Hiritarron Harrera Sarea, Kolore Guztiak, Denon, Hotz Zarautz, Oxfam Intermon, SOS Arrazakeria eta Errenteriako Emakume Taldea**.

Gaur egun, **112.000 errefuxiatutik gora** dago Grezian, eta horietatik **31.000 Lesbosko uhartean**. Gainera, Europako Batasunak eta Turkiak 2016an sinaturiko hitzarmenak dakarrenez, errefuxiatu bat uharte batera iristen bada, bertan gelditu beharra du **estatusa aitortzen dioten arte**, eta **zain egon behar** izaten du hilabeteak eta urteak ere; bitartean, **debekatu egiten zaio inora joatea**. Ia **20.000 lagun** daude pilatuta gaur egun **Moriako landan**; uharte hori hasiera batean **2.800 lagun** hartzeko prestatu baitzuten, **ez argirik dute ez ur korronterik dute, eta janaria eta osasun arreta jasotzeko zailtasun gogorak dituzte**.

Gero eta makurrago daude, hala berean, **Europako Erdialdera Greziatik** sartzen saiatzen ari diren migratzaileak. Sartzeko baimenik ez, eta **Mazedonia iparraldeko** muga ezin gurutzaturik dira, eta gauza bera gertatzen ari zaie **Serbiako** eta **Hungariako** muga. Bide alternatibo bat dute **Kroaziarantz Albanian** eta **Bosnia-Herzegovinan** barrena, eta huraxe dute **bide neketsu eta ezinbesteko bakarra** herrialde askotako **milaka lagunek**, zeinak etengabe ari baitira salatzen **Poliziaren indarkeria, torturak eta ausaz egindako atxiloketak**.

Hori guztia dela eta, deitzaileek herritarrei eskatzen diete **ager daitezela** larunbat honetan salaketa eta protesta egitera **Bulebarreko kioskora**. Mobilizazio horretan **EBren eta estatu kideetako gobernuen jarrera salatuko dute**, eta orobat **Eusko Jaurlaritzarena, armen industriari eta merkataritzari** laguntzen baitio. Negozio horrek gatazka belikoak elikatzen ditu, eta **migrazio mugimendu asko eta askoren sorburua** da.



## 14 ORGANIZACIONES SOCIALES DE GUIPUZKOA CONVOCAN UNA MOVILIZACIÓN ESTE SÁBADO EN EL BOULEVARD PARA PROTESTAR CONTRA LAS CONDICIONES DE VIDA INHUMANAS DE LOS REFUGIADOS EN GRECIA Y EN LOS BALKANES

- Habrá una acampada a las 12:00 y una concentración a las 13:00 para denunciar la responsabilidad de la Unión Europea en la dramática situación de las personas que se han visto obligadas a buscar refugio
- La iniciativa está promovida por Ongi Etorri Errefuxiatuak, Amnistía Internacional, Bake-Ekintza Antimilitarista, Salvamento Marino Humanitario, Zaporeak, Grupo Oarso Taldea, Asociación Matiz, Hiritarron Harrera Sarea, Kolore Guztiak, Denon, Hotz Zarautz, Oxfam Intermón, SOS Racismo y Erreterriako Emakume Talde

Donostia.- Un total de 14 organizaciones sociales de Gipuzkoa han convocado una movilización para este **sábado 29 de febrero** en el **centro de la capital donostiarra**, en **protesta** por la **grave situación** que siguen padeciendo las **personas refugiadas y migrantes** que buscan asilo en **Europa**, y en especial las que se encuentran en **Grecia** y los **Balcenes**. La convocatoria incluye una acampada a las **12:00** en torno al **quiosco del Boulevard**, y una concentración a partir de las **13:00**.

Convocada bajo el lema "**Unión Europea Culpable**", la iniciativa corre a cargo de **Ongi Etorri Errefuxiatuak, Amnistía Internacional, Bake-Ekintza Antimilitarista, Salvamento Marino Humanitario, Zaporeak, Grupo Oarso Taldea, Asociación Matiz, Hiritarron Harrera Sarea, Kolore Guztiak, Denon, Hotz Zarautz, Oxfam Intermón, SOS Racismo y Erreterriako Emakume Talde**.

En la actualidad, **Grecia** alberga algo más de **112.000 personas refugiadas**, de las cuales **31.000** están en la **isla de Lesbos**. Además, según el acuerdo que firmaron la **Unión Europea** y **Turquía** en 2016, cuando una persona refugiada llega a una isla griega tiene que quedarse allí a la **espera del reconocimiento de su estatus**, que puede tardar meses o años, **imposibilitando su libre circulación**. Casi **20.000 personas** se agolpan actualmente en el **campo de Moria**, habilitado en esta isla griega con una capacidad inicial de **2.800, sin acceso a luz o agua corriente**, y con **serias limitaciones** en cuanto a **alimentación y atención sanitaria**.

La **situación** también es **cada vez peor** para las personas migrantes que tratan de llegar a **Europa Central desde Grecia**. Sin permiso de entrada, tienen dificultades a la hora de cruzar las fronteras con **Macedonia del Norte**, o la que separa **Serbia de Hungría**. Una ruta alternativa hacia **Croacia** a través de **Albania** y de **Bosnia-Herzegovina** se ha convertido en el **duro y obligado hogar de miles de personas** de distinta nacionalidad, que denuncian constantemente **violencia policial, torturas y arrestos arbitrarios**.

Por todos estos motivos, las organizaciones convocantes **llaman a la participación** de toda la ciudadanía en el **acto de denuncia y de protesta** a celebrar el **sábado** en torno al **quiosco del Boulevard**. Una movilización en la que **se denunciará la actitud de la UE** y de los **gobiernos de sus estados miembros**, así como el apoyo institucional a la **industria y el comercio de armas** por parte del **Gobierno Vasco**, un negocio que alimenta conflictos bélicos que están en el **origen** de buena parte de los **movimientos migratorios**.

